

FUNTSEZKO JARDUERAK

1. Jostailuen bilketa eta sailkapena

Gure jarduera nagusia da Juguettos bezalako dendetan jendeak uzten dituen jostailuak jasotzea.

Jostailu horiek gure lokalera eramaten ditugu eta bertan:

- Garbitu
- Konpondu
- Egoeraren arabera sailkatu (ondo daudenak berrerabili, apurtuta daudenak birziklatu)

Hau ezinbestekoa da gure balio-proposamena betetzeko.

2. Bezeroen arreta eta komunikazioa

Bezeroekin harreman ona izatea oso garrantzitsua da:

- Zalantzak erantzutea
- Puntuak eta sariak nola erabili azaltzea
- Arazoak konpontzea
- Publizitatea
- Azokak eta ekitaldiak

Hau gure langileek zuzenean egingo dute.

3. Denden eta lankidetzen kudeaketa

Beste enpresekin dugun harremana zaindu behar dugu:

- Juguettos dendeekin kontaktuan egon
- Jostailuen bidalketak antolatu
- Lankidetza berriak bilatu

Hau ezin da kanpora utzi, guk kudeatu behar dugu.

4. Kudeaketa ekonomikoa eta antolaketa

Azkenik, dirua eta gastuak ondo kontrolatu behar dira:

- Diru-sarrerak eta gastuak apuntatu
- Aurrekontuak egin
- Langileen ordutegiak antolatu

Horrela proiektua epe luzera mantendu ahal izango dugu.